

**2000KO APIRILAREN 18AN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hamazortzia

HILABETEA: Apirila

URTEA: Bi mila

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hiru (4)

MAHAIBURUA: Jon Jauregi Bereziartua

BILDUAK: Josi Insausti Mujika

Andoni Antxia Etxebarria

ETORRI GABEA: Arantxa Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

2000ko otsailaren 16ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

2- FAKTURAK. 25.352.959 pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengoa erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiei dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

3- ZIURTAGIRIAK

10.000.000 pezeta baino gutxiagoak direlako, obra-ziurtagiri hauen berri eman da:

a- Matximentako frontoiari buruzko obren azken likidazioa: 1.231.251 + B.E.Z. pezeta.

b- Oria ibaia bideratzeari buruzko obren azken likidazioa: 6.314.085 pezeta.

4- BAIMENA

Goi Etxek eskatuta eta eknikoaren eta hirigintza batzrodearen aldeko txostenaren arabera, Nafarroa Etorbidea 13ko etxebizitzaren eraikinrentzat lehen erabilerako baimena ematea erabaki da.

5- HITZARMENAK

a- Txilibutxof taldearekin hitzarmena.

Txilibutxof taldearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokionean eman ere:

- Mozorrotzeko tailerra eta ihauteri jaia	45.000 pezeta.
- Haur batzordea antolatu (marrazki tailerra, mozorrotuen desfilea...)	123.000 pezeta
- Pintura edo eskulanean tailerra (udazken kulturala)	82.000 pezeta
- Bideo proiektuaren lagapena	8.000 pezeta
GUZTIRA.....	258.000 PEZETA

Horretaz aparte, txilibutxof taldea gaztetxoaren astialdia suspertzeko egitaraua antolatuko du et Beasaingo Udalak ekintzak burutzeko dirulaguntza emango du. Subentzio hau egitarauaren zenbatekoaren arabera zehaztu eta ekainean ordinduko da.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

b- Loinatz Abesbatzarekin hitzarmena.

Loinatz Abesbatza elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokionean eman ere:

- Aste santuko emanaldia	153.000 pezeta
- Gabonetako emanaldia	160.000 pezeta
- Loinatz jailetako emanaldia	160.000 pezeta
- Tolosako koroa	325.000 pezeta
- Bestelako koroa	144.000 pezeta
GUZTIRA.....	942.000 pezeta

Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

c- Aurtzaka dantza taldearekin hitzarmena

Aurtzaka dantza taldearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokionean eman ere:

- Hurreentzako IX. Aurreku lehiaketa (martxoak, 25)	132.000 pezeta+soinua+antzokia
- Doinu zahar txapelketa (martxoak, 26)	190.000 pezeta+soinua+antzokia
- Dantzari txikiak (apirilak, 9)	375.000 pezeta+soinua+eszena.
- Udazken kulturala (azaroan)	250.000 pezeta+soinua+eszena.

GUZTIRA.....947.000 pezeta

Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

6- LAGAPENA

Kultura batzordeko aldeko txosten izanda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Ekologista taldeari, nagusia kaleko 40 zenbakiko gela uztean, Ezkiaga auzo etxeko tailer gelan biltzeko aukera ematea onartzen da. Baimena, gela erabiltzeko bakarrik izango da.

7- ABERRI EGUNA

Gai honi buruz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

- Beasaindar guztiei dei egitea, igandean, apirilak 23, Aberri Eguna ospatzeko eta antolatutako ekintzetan parte hartzeko.

- Aberri Eguna ospatzeko Udalbiltzak proposatutako dokumentua onartzea (bukaeran transkribatzen da Udalbiltzaren dokumentua).

- Beasaindarrei dei egitea balkoi eta leihoetan ikurrina jartzeko.

- Jarraian aipatzen diren ekintzak antolatzea:

13,00 etan Udaletxeko balkoian ikurrina jasoko da eta Gobernu Batzordean onartutako dokumentua irakurriko da.

San Martin plazan "lunch" herrikoia izango da eta ekitaldia alaitzeko txistulari eta dantzariak parte hartuko dute.

“2000ko ABERRI EGUNA EUSKAL HERRIA ERAIKITZEN

Gaur, apirilak 23, igandea, Aberri Eguna da. 1.931tik, egun hau gure Herriaren eguna izan da, eta, beste herri askotan egiten den antzera, gure nazioaren berrespen baketsu eta kolektiboa ospatuko dugu gaur. Egun honekin, euskaldun guztiak batzea dugu helburu, geure nortasunaren adierazpen askea eginaz eta geure herriaren biziraupen borondatea alaiki aldarrikatuz.

Euskal Herria nazioa da eta nazio bati dagozkion eskubide politikoak ditu. Eskubide horiek aldarrikatzera dator gaurkoan UDALBILTZA.

Herri bezala, nazio bezala irautea eta garatzea dugu helburu, ez baitira makalak, XXI mende honetan, etorkizunari begira, ditugun erronkak. Izan ere hor dugu aurrez aurre, munduan zehar, ekonomi eta kultur alorreko globalizazioaren fenomenoak. Globalizazio honek errotik astintzen ditu gure gisako herri baten ekonomia, kultura, hizkuntza eta gizartea bera ere. Eta uniformizazio fenomeno horri erantzuteko beharrezkoa da herri honek bere baliabide politiko, instituzional, ekonomiko edo kulturalak zehaztu eta bideratzea. Horretxegatik gatoz, hain zuzen ere, Aberri Eguna ospa dezaten gonbitea luzatzera hiritar guztiei.

Horretan ari gara, Euskal Herriaren nazio kontzientzia demokratikoan sakonduz, herri bezala aurrera egiteko lanabesak martxan jartzen. Aipatu erronka horiei ekiterakoan Euskal Herriak bidean aurkitzen dituen zailtasunak ez dira nolana hikoak, eta horiek gainditu eta ezabatzea da gure helburua, euskal herritar guztion arteko eztabaida demokratikoari bide emanez, gure arteko harremanak sakonduz eta herri honen etorkizun politiko, kultural, ekonomiko nahiz hizkuntza alorrekoari bermea eskainiz, inongo indarkeria edo inposaketa jarrerarik gabeko giroan.

Horregatik, ozenki adierazi nahi dugu euskal herritar guztien borondate librearen gainean soilik eraiki daitekeela Euskal Herria nazio moduan, inolako aurrebaldintza eta mugarik gabeko eztabaida demokratiko eta politikoaren bitartez. Herritar eta ideia anitzez osaturiko herri honetan dauden proiektu politiko guztiak leku izango duten eskenatoki demokratiko eta baketsuaren alde lan egiteko konpromisoa hartzen dugu gure gain.

Hausnarketa hauen inguruan burutu dugu aurtengo Aberri Egunaren deialdia, alegia, udal izaeran oinarritzen den euskal instituzio nazional honek eraikuntza demokratikoari begira hartutako ardurak berresteko asmoz. Ospakizun eguna da, baina baita konpromisozkoa ere, euskal gizartearen

etorkizuna bakean, justizian eta askatasunean eraiki nahi dugulako. Euskal Herriaren eguneroko eraikuntzan orain artean egindako bideari jarraitzeko borondatea agertzen baitugu, gaurko zitaren bidez.

Aurtengo Aberri Egunak, bada, euskal gizartearen aniztasun sozial eta politikoa oinarriztat hartzen duen nazio eraikuntza libre eta demokratikoari zabaltzen dio leihoa, alderik alde, inposaketa eta zapalketa orori aurre eginez, irekitasuna ikurtzat harturik. Gatazka politikoa eta honen ondorio larrientzat behin betiko soluziobidea mahi gainean jarriz, alegia, burujabetza eta lurraldetasun eskunbideak ezagutuak izango dituen Euskal Herriaren onarpena.

Beraz, herrigintza guztion eginbeharra da, eta guztiok behar gaitu, inor baztertu gabe.

Udalbiltzak hala uste du eta hauxe dio: etorkizuna euskal hiritarren eskuetan dago, herri honen eraikuntza nazional eta demokratikoaren eskuetan. Horregatik, dei egiten diegu hiritar guztiei, Aberri Eguna guztion artean alaiki ospa dezagun.”

8- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.